Eremu Urriko Hizkuntzen VII. Nazioarteko Biltzarra Bilbon egingo da abenduan

Adituek Quebec, Katalunia, Gales eta Euskal Herriko kasuak landuko dituzte

Gorane Agirre / **Bilbo**

Eremu Urriko Hizkuntzei buruzko VII. Nazioarteko Biltzarra abenduaren batetik hirura egingo da Bilbon, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailordetzak bultzaturik. Bertan, hizkuntzak biziberritzeko saio praktikoak izango dira hizpide. Besteak beste, Quebec, Katalunia, Gales eta Euskal Herriko kasuak aztertuko dira.

BILBOKO Euskalduna Jauregian egingo da Eremu Urriko Hizkuntzen VII. Biltzarra. Bi ardatz nagusi izango ditu, Josune Ariztondok, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, atzo azaldu zuenez: batetik, hizkuntza biziberritzeko saioetako eredu teorikoak aztertuko dira; bestetik, hizkuntzak biziberritzeko saio praktikoak izango dira aztergai.

«Hizkuntza, esperientzia eta eredu teoriko ezberdinen topagune hau oso baliagarria izango zaigu euskararen berreskurapenean egiten ari garen lana aztertu eta hobetzeko», esan zuen Ariztondok.

Orotara, bost hitzaldi nagusi, hamar komunikazio eta 30 poster eratuko dira. Biltzarreko lehen egunean, abenduaren batean, eredu teorikoak aztertuko dira, eta beste bi egunetan, berriz, munduan egin diren saio praktikoak.

Hizlarien artean, aipatzekoa da Joshua Fishman, Israelgo Yeshivako Unibertsitateko kokatedraduna. *Hizkuntza biziberritzeko saioetarako eredu teorikoak* arloa landuko du Fishmanek.

Era berean, hizkuntza biziberritzeko nazioarteko saioen alorrean lau hizlari beren herrietako esperientziez mintzatuko dira: Lluis Jou, Kataluniako Generalitateko Hizkuntza Politikarako zuzendaria; Xabier Aizpurua, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzako ikerketa burua; Colin Williams, Cardiffeko unibertsitateko katedraduna; eta Jean Claude de Corbeil, Quebeceko Gobernuaren Hizkuntza Politikako zuzendaria.



GORKA BILBAO

Koldo Ordozgoiti eta Josune Ariztondo, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, atzoko agerraldia hasi aurretik.

Euskararen Eguna, abenduaren 3an

DUELA 50 urte Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu zuten lehenbiziko aldiz Iparraldeko eta Ameriketako euskaldunek. Abenduaren 3a aukeratu zuten horretarako.

Geroztik, zenbait tokitan egun hori ospatzen segitu badute ere, ohitura galduz joan da. Duela hiru urte, hainbat kolektibok egun hori berreskuratzeko eskaria egin zieten Eusko Jaurlaritzari eta Euskaltzaindiari.

Horrela, iazko bere azken bileran, Euskaltzaindiak abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna izendatzea onetsi zuen, eta aurten ospakizun hori berreskuratu egingo da.

«Aurten abenduaren hirua Biltzarraren azken eguna izango da. Horregatik, Biltzarra bukatu ostean, oraindik zehaztu gabeko kultur emanaldi bat izango da Euskalduna Jauregian», azaldu zuen Josune Ariztondok, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak.

Nafarroa Oinez-en kantak sei bertsio izango ditu

Gerardo Goñi: «Irudi anitza eman nahi dugu»

Europa Press/**Iruñea**

SEI bertsio izango ditu aurtengo Nafarroa Oinez-en kantak, seiak desberdinak arras. Jon Maiaren hitzei Gozategik, Xut Fanfarreak, Koldo Pastorrek, Barricadak, Hemendik at-ek edo Mikel Salasek jarritako musikek ez dute, bistan da, elkarren antz handirik, baina denek biltzen dute aurtengo Nafarroa Oinez-ek eman nahi duen irudiaren arima, atzo Jaso ikastolako lehendakari Gerardo Goñik esan zuenez. «Irudi askotarikoa eman nahi dugu, egunerokotasunarekin eta musikarekin ondo uztartuta dagoen gizarte batena».

Aurten Iruñeak jasoko du Nafarroako ikastolen aldeko jaia, eta musikarekin batera, telebistarako prestatutako iragarkia aurkeztu zuten atzo ikastolakoek. Bertan antzinako eta gaur egungo Iruñearen irudiak aurkezten dira.


JOXE LACALLE

Kantaren aurkezpena, atzo Iruñean.

Bonbardaketek Balkanetako egoera larriagotu baino ez dutela egin salatu dute

Gerraren aurkako plataformak dio gerrek ezin dutela inoiz ezer konpondu

Erredakzioa / **Iruñea**

NATOren bonbardaketak Balkanetako populazioen egoera larritu eta kalte oso larriak eragin besterik ez du egin, eta herri hondatua utzi du. Hori da balantzea, Gerren kontrako Iruñeko Batzordeak atzo azaldu zuenaren arabera. Talde horrek zoriondu nahi izan zituen Iruñeko Gazteluko Plazaren kontzentrazioetan parte hartu duten herritarrak, eta iragarri lanean jarraituko duela gerren kontra. «Garbi baitakagu gerrak ezin direla inoiz ezeren konponbide izan, arazoa baitira berez».

Bonbardaketen amaieraren ondoko balorazioa egitean, talde antimilitaristak, elkartasunezkoak, sindikatuak eta talde politikoak biltzen dituen plataforma horrek berretsi zuen osaketa egunean aipatu ziren helburuak: alegia, Milosevicen gobernuaren garbiketa etnikoari ez, eta NATOren bonbardaketei ere ez. Etniaaniztasunaren aldeko deia egiten zuen orduan taldeak, «gehiengo eta gutxiengo guztien eskubide eta askatasunari errespetua, herri bakoitzaren eskubide demokratikoak bultzatuz».

Ikusita zer emaitza utzi duten NATOren bonbardaketek, erabat ezkor dira plataformako kideak, Milosevic boteretik ez kentzeaz gain, «bere erregimena indartu egin baita, eta krimenak areagotu».